



UDAL BATZARRAK
ONARTUA

2020 EK: 29


APROBADO
POR EL PLENO MUNICIPAL

EIBARKO UDALAREN ETIKA ETA GOBERNU ONAREN KODEA

2020ko martxoa

AURKIBIDEA

0. Sarrera
1. Eibarko Udalean jarduera publikoan aritzeko kode etikoa.....
2. Gobernu onaren printzipioak
3. Ordezkaritza politikoen erantzukizuna eta konpromisoak, Eibarko Udalean kalitate instituzionaleko politika aurrera eramateko
4. Banakako atxikimendua
5. Eibarko Udaleko Etika eta Gobernu Onaren Batzordearen osaera eta eginkizunak, eta jokabide-kodea ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik hartu beharreko neurriak
6. I. eranskina: Atxikipen aitortzea
7. II. eranskina: Kontsultak eta salaketak aurkezteko modua.....






SARRERA

Eibarko Udaleko Gobernu Batzarrak Gardentasun Estrategia onartu zuen, 2017ko azaroaren 10ean. *Gardentasun Estrategia* asmo handiko udal proiektua da, gardentasunarekin eta gobernu onarekin konpromiso politikoa eta antolaketarena biltzen dituen. Agiri horretan zehazten dira Udalaren ordezkari politikoek bete eta errespetatu behar dituzten Gobernu Onaren printzipio etikoak. Etika eta Gobernu Onaren Kode honen bidez, konpromiso horiek indartu nahi dira, eta dokumentu bakar eta bereizi bat sortu, besteak beste, honako hauek jasoko dituen: bete beharreko jokabidearen printzipio eta estandar orokorrak, betebehar orokorrak, erantzukizun publikoen jarduna, kargu publikoen jarduna, prestazio eta baliabide publikoen kudeaketa, eta Eibarko Udalaren Gobernu Taldea osatzen dutenek beren borondatez hartzen dituzten konpromisoak eta erantzukizunak.

Orain arte, tokiko ordezkari politikoek adierazi dute beren funtzio publikoetan jokaera-kode bat betez aritzeko borondatea dutela lege hauetan jasotako printzipioetan oinarrituz: Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea (Gobernu Onari lotutako 25. artikulutik 40.era) eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea (VI. Titulua. Gobernu Irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea. II. kapitulua. 35. artikulua); adierazi dute, halaber, konpromiso berriak hartzeko borondatea dutela udal kudeaketaren esparruan etika publikoa eta kalitate demokratikoa eta parte-hartzailea indartzeko, eta herritarren konfiantza beren gobernuarekiko sustatzeko.

Hortaz, Eibarko Udalaren Etika eta Gobernu Onaren Kodeak hautetsien eta herritarren arteko konfiantza gehiagotzeko tresna izan behar du, baita udal arduradunen jarduteko konpromiso publikoa ere, hautesleek emandako agindua errespetatuko dela bermatzeko.

Halaber, Etikaren eta Gobernu Onaren Kode hau egiteko, kode etikoen eta jokabidearen arloko beste jardunbide egoki batzuk aztertu eta kontuan hartu dira, hala nola EUDELe 2013an egindakoa, *Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodea* (105. BOE, maiatzaren 28ko 13/2013 Ebazpena), *Tokiko Gobernu Onaren Kodea*, FEMPk onartua, 2015eko martxoaren 24an, bai eta Bilboko Udalaren 2015eko azaroaren 24ko *Kode Etikoa, Gobernu Ona eta Konpromiso Instituzionala* delakoa, eta Barakaldoko Udalaren *Etikaren eta Gobernu Onaren Kodea* ere, 2017an onartua.



I.- EIBARKO UDALEAN JARDUERA PUBLIKOAN ARITZEKO KODE ETIKOA

Kode etikoaren helburuak

Udal Gobernuak osatzen duten Eibarko Udaleko ordezkari politikoei, bai eta zinegotzi ordezkariari aholkularitza ematen dieten behin-behineko edo gobernu-erantzukizunik gabeko izendapen libreko langileek ere jarraitu beharreko jokabide-printzipio eta -estandarrek zehaztea da Kode Etiko honen helburu nagusia.

Kode Etikoaren hartzaileak


Portaera Printzipioei, Jokabide Estandarrei eta Gobernu Onaren Printzipioei buruzko atalak Eibarko Udal Gobernuak osatzen duten ordezkari politikoei aplikatuko zaizkie, baita alkateari eta arloetako zinegotzi ordezkariari aholku ematen dieten behin-behineko edo izendapen libreko langileei eta gobernu-erantzukizunik ez duten ordezkari politikoei ere.

Nolanahi ere, Kode Etiko hau nahitaez bete behar dute Udaleko Gobernu Taldeko kideek, alkateari aholkularitza ematen dieten behin-behineko edo izendapen libreko langileek, eta arloko zinegotzi ordezkariak. Borondatezkoa izango da gobernu-erantzukizun ez duten gainerako udal ordezkari politikoenentzat.

Kode etikoaren izaera

Aurreko atalean aipatutako hartzaileek kode honetan jasotako etika- eta jokabide-arauak errespetatu behar dituzte. Arau horiek ez direla bete edo ez direla behar bestean bete frogatzeko moduan egiaztatuz gero, Etikaren eta Gobernu Onaren Batzordeak —horretarako propio sortua— erabaki bat hartzea proposatuko du txosten arrazoitu eta xehatuan, arrazoi zehatzak jasota, baita boto partikularrak ere, non, aztertutako ekintza edo omisioen larritasunaren edo eragin instituzionalaren ondorioen arabera, neurri hauetakoren bat hartzea proposatuko duen:


- a) Ohartarazpena egitea ezarritako arau etiko, jokabide-arau, balio, printzipio eta konpromisoerik eragiten dien ekintza edo omisio batean inplikaturiko pertsonari edo pertsonari, urratzeak interes publikoari kalte arina eragiten dion kasuetarako, eta, aldi berean, haxe ohartaraztea: antzeko jokabideetan edo omisioetan berriro eroriz gero, kargutik berehala kentzea edo karguari uko egitea gomendatu ahal izango litzatekeela.
- b) Kargua berehala uzteko edo karguari uko egiteko gomendioa ematea ekintza edo omisio batean parte hartu duen pertsonari edo pertsonari, arau etikoak, jokabideak, balioak, printzipioak eta konpromisoak bete ez eta ez-betetze horrek interes publikoari kalte larria eragiten badio.



- c) Egintzak organo eskudunari helaraztea —Etika eta Gobernu Onaren batzordeak emandako txostenarekin batera—, aplikagarri den legeriak aurreikusten duenaren arabera, espedientea hasteko, instrukzioa egiteko, eta, hala badagokio, diziiplina-zehapena jartzeko.
- d) Etika eta Gobernu Onaren batzordearen bidez Ministerio Fiskalera igortzea, ez-betetzeak dakarren ekintza edo omisioa zigor-arloko arau-haustea izan daitekeenean.
- e) Ez dela egon inolako omisiorik edo ez-betetzetik dioen adierazpena, kode honetako arauak hobeto betetzeko eman daitezkeen gomendioak alde batera utzi gabe.

Tokiko ordezkarien jokabidearen printzipio orokorrak

- **Zuzentasuna.** Zuzentasuna da zerbitzari publikoari zerbitzu publikoaren printzipioarekin eta harekin bat datozen beste printzipioekin (inpartzialtasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, legezkotasuna, etab.) koherentziaz jarduteko bidea ematen dion bertutea. Hori bai, balio-gatazka saihestezinaren aurrean beti bilatuko du bidezko bitartekoa, alegia, balio desiragarrien arteko konpromiso zuhurra.
- **Eredugarritasuna.** Udala herritarrentzat eredugarri den erakundea denez, saihestu egin behar da Udalaren irudi instituzionalari kalte egin diezaiokeen edozein ekintza edo omisio, edo herritarren konfiantza murriztu dezakeen edozein erabaki.
- **Interes subjektiborik eza.** Erabakiak interes publikoaren onerako baino ez dira hartu behar. Horrek esan nahi du, era berean, ez dela susmorik txikiena ere izan behar hartutako erabakiak onuragarriak direla (edo izan daitezkeela) erabakiak hartzen dituen pertsonarentzat, haren senideentzat, lagunentzat edo erabakiok udalerraren interes orokorretik urrun dauden interes partikularren eraginpean daudela.
- **Inpartzialtasuna.** Jardun inpartzialak beti presente egon behar du emandako agintetik eratorritako betebeharrak orok dakartzan erabakiak hartzeko prozesuan. Esaterako, inpartzialtasun osoz jardutea langileen izendapenean, administrazio-kontratazioetan, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko orduan, arauak aplikatzerakoan, finantza-baliabideak edo beste edozein baliabide erabiltzeko prozesuetan, interes partikular orotatik kanpoko irizpide independentea mantenduz, betiere.
- **Kontuak ematea.** Hartutako erabaki eta ekintzen erantzule izango dira uneoro. Horrek esan nahi du erabaki bakoitzaren arrazoi objektiboak argitu eta azaldu behar direla, herritarren iritzia aurrean jarri, ebaluatu eta, hala badagokio, egindako akatsen ondorioak onartu. Nolanahi ere, kontu-emateak beti exijitzen du, ordezkariak, erabaki txar edo oker batengatik eratorritako erantzukizun politikoa edo kudaketa-erantzukizuna beren gain hartzea.
- **Gardentasuna.** Modu irekian eta gardenean hartu behar dira erabakiak eta gauzatu ekintzak, herritarrei informazio fidagarria eta osoa emanez hartutako erabakien prozedurari eta arrazoiei buruz, bai eta finantza-kostuei buruz ere; informazio hori legeek hala aurreikusten dutenean



bakarrik mugatuko da. Gardentasunak berekin dakar Gobernu Irekiaren (“Kristalezko Gobernua”) aldeko apustu sendo eta irmoa, batez ere diru-kutxa publikoei eta herritarrei eskatzen zaizkien zergei lotutako erabaki ekonomiko eta finantzarioetan. Gardentasunak, gainera, eskatzen du administrazio-hizkuntza sinplifikatzea eta informazioa herritarrei erraz eta ulertzeko moduan aurkeztea.

- **Zintzotasuna.** Ordezkariek zintzo jokatu behar du, bere eginkizun publikoak oztopa ditzakeen interes pribatu oro deklaratu eta sor daitekeen edozein interes-gatazka konpontzeko beharrezko urratsak emanez. Horrek esan nahi du Zuzenbideari obeditu behar zaiola, prozeduren letrari eta espirituari jarraitu, kudeaketa ekonomiko-finantzario eraginkorra egin, Kode Etiko hau bete, eta norberaren interesen inguruko edo Udaleko beste kargu publiko batzuei edo zuzendaritza-kargua duten langileei eragin diezaieketen edozein gatazka agerian jarri.
- **Errespetua.** Herritarrek, enplegatu publikoak eta gainerako ordezkariek eta zuzendariak behar den errespetuz tratatuko ditu, une oro eta leku orotan. Horrek esan nahi du ez dela mespretxuzko hitzik erabili behar, besteen eskubideak errespetatu behar direla eta ez dela inolako bereizkeriarik egin behar, jendea adeitasunez tratatu behar dela eta pertsona bakoitzak antolakuntzan eta tokiko erabakiak hartzeko prozesuan dituen rola aitortuz. Adeitasunez jokatu da beti ordezkariek politiko, zuzendari, langile, hornitzaile eta herritarrekin.
- **Jarduketa arduratsua.** Beren eginkizunak betetzerakoan, behar den arduraz jokatu dute eta zerbitzu publikoen kalitatea sustatu dute.
- **Erantzukizuna:** Beren eta zuzentzen dituzten erakundearen erabakien eta jardueren erantzukizuna beren gain hartu dute.

Tokiko ordezkariek bete beharreko jokabide-estandarrak

Jokabide-estandarrak jarduera-printzipio multzo bat dira, zeinak ordezkaritza-kargu publikoaren izaeratik eratorritako gutxieneko betebeharrak eta obligazioak biltzen dituzten, eta eginkizun horiek Udalaren egituraren bidez zeregin instituzionala indartzera bideratuta dauden, herritarren ikuspegitik benetan betetzen direla egiaztatzeko xedez. Jokabide hori honako estandar hauetara egokituko da:

Ordezkariek publikoaren betebeharrak orokorrak


- Agintaldiaren hasieran, bateraezintasun- eta jarduera-arrazoiei buruzko Adierazpena eta ondare-ondasunen Adierazpena egingo du. Agintaldian zehar izan dituen ondare-aldaketen berri eman behar du, edo, horrela egin ezean, agintaldiaren amaieran.
- Gainerako pertsonak behar den errespetuarekin eta egoera bakoitzak eskatzen duen begirunearekin tratatuko ditu.
- Ezin izango du gezurrik esan bere curriculum profesionalaren, titulazioen eta esperientziaren berezko datuei buruz, erakundeari eta herritarrei zor zaien errespetuagatik.



- Ez die hirugarrenei jakinaraziko isilpeko informaziorik edo bere karguagatik jakin duen informaziorik, eta isilpean gorde beharko du. Betebehar hori gardentasun printzipiotik eratorritako obligazioekin bateratu beharko da beti.
- Ez da jokatu behar Udalak herritarren aurrean duen irudiari kalte egin edo haren izen instituzionalari eragiteko moduan.
- Ez du inoiz bere jarrera instituzionala erabili behar beretzat abantailak lortzeko edo beste edozein pertsona edo erakunderentzat abantailak edo desabantailak lortzeko, legez onartutako diskriminazio positiboko kasuetan izan ezik.
- Ordezkeri publikoaren jarraibideak beste pertsona batzuek betetzen dituztenean, ahaleginak egin beharko ditu pertsona horiek norberari onura ateratzeko edo hirugarrenei onura edo kalte egiteko erabil ez ditzaten.
- Bere eginkizunak betetzerakoan, ezingo du inolako neurririk hartu bere eginkizunei uko egin ondoren abantaila profesional pertsonala izateko.
- Edozein erabaki politiko eta/edo administratibo justifikatzen duten arrazoi objektiboak egiaztatu beharko ditu beti, arrazoituz.
- Erabakiak hartzeko prozesuan, gai horri aplika dakiokkeen legezko arauetz gain, iritzi eta aholku guztiak hartu beharko ditu kontuan, bai eta planteatutako arazo edo gaiari irtenbide arrazoizkoena eta eraginkorrena ematen laguntzen dioten txosten edo azterlan guztiak ere.
- Organo eskudunei edozein jarduketa irregularren berri emango die, baldin eta horrelakoen berri izango balu.

Erantzukizun publikoak

- Bere eginkizunak arretaz, zerbitzu publikoarekiko arduraz, gardentasunez eta bere erabakiengatik erantzuteko borondatez bete beharko ditu, printzipio horien aurkako edozein jokabide alde batera utzita.
- Faboritismoa edo pertsonen edo erakundeen aldeko tratua egon daitekeela bide ematen duten edozein jokabide saihestu beharko du.
- Ez ditu bere karguaren edo lanpostuaren abantailak erabiliko, ez zuzenean, ez zeharka, norberaren interes pribatuari edo pertsonen edo taldeen interes espezifikoek mesede egiteko, ez abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko ere.
- Edozein bozketatan edo erabakitan, bere interesen eta interes publikoaren arteko talka badago, horren berri eman beharko du, eta abstenitu egin beharko da zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala duen bozketa edo egintza guztietan, edo interes-norgehiagoka hori egon daitekeela ondoriozta daitekeen guztietan.
- Baliabide publikoak babestu, behar bezala zaindu eta eraginkortasunez kudeatuko ditu, eta ez du ondasun publikorik erabiliko interes pribatuetarako.
- Tratu berdina bermatuko die, inolako diskriminaziorik gabe, bai herritarrei, bai erakunde edo entitateei.
- Ekitatea sustatuko du, eta erabat betetzea eragozten duten oztopo guztiak kenduko ditu.




- Indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkion ahalak erabiliko ditu, eman zireneko xede bakarrarekin, eta erakundearen interes publikoa edo ondarea arriskuan jar dezakeen ekintza oro saihestuko du.
- Oro har, errespetatu egin behar ditu bere jardun publikoari eta bere erantzukizunak betetzeari buruz onartu ohi diren arauak eta konbentzio sozialak.

Interes-gatazkak

- Interes-gatazka bat dago interferentzia-egoera bat agertzen denean interes publiko baten edo batzuen eta beste interes pribatu edo publiko batzuen artean, halako moldez non eman baitezake betebeharrak publiko nagusiaren erabilera independente, objektibo eta inpartziala jartzen duela arriskuan (Jospin Batzordearen definizioa, 2012).
- Interes-gatazka oro saihestu behar du, hau da, erabakiak hartzeko prozesu batean edozein pertsonak ikus dezakeenean egon daitekeela betebeharrak publikoak betetzea eragotzi edo desbideratu dezaketen interes pribatuen eragina.
- Ordezkariek ez ditu bere abantailak edo erakundearen eskumenak erabiliko prozedurak azkartzeko, kargak kentzeko edo hirugarren pertsonen zuzendutako onuren bat emateko, Udalarenak ez diren interesengatik.
- Era berean, ez da inolako negoziarik egingo, baldin eta, zuzenean edo zeharka, Udalaren interes publikoekin talka egiten badute edo, zuzenean edo zeharka, ordezkaritza-kargu publikoaren jardura publikoa zalantzan jartzen badute.
- Kargu publikoren bat betetzen ari dela, bere obligazio eta erantzukizunekin talka egiten duen edo egin dezakeen interes-gatazka posible bat izan dezakeenak berehala jakinaraziko du, ahal bada, idatziz, gatazka hori badela edo, gutxienez, interes-gatazka hipotetiko bat egon litekeela. Nolanahi ere, interes-gatazka baten aurrean nahiz gatazkaren existentziari buruzko zalantza hipotetikoaren aurrean, erakundearen izen ona salbatzeko kautelazko neurri gisa, ez du parte hartuko erabakiak hartzeko prozesuetan, baldin interes-gatazka hipotetiko baten susmorik txikiena badago.
- Alderdi politikoaren zuzendaritza-organo exekutiboetan karguak betetzeak ez du inola ere bere eginkizunetan aritzea kaltetuko edo konprometituko.

Opariak eta balizko onurak

- Ordezkaritzako kargu publikoak ez die onartuko inolako oparirik edo zerbitzurik pertsonen edo entitateen, bere karguagatik ematen zaion ohiko usadio sozial eta kortesiatik harago doanik. Erabilera edo usadio horiek gainditzeko oparirik kasuan, erakundearen ondarean sartuko dira. Edozelan ere, uko egingo dio etorkizuneko erabaki politiko, publiko edo administratiboetan eragina izan dezakeen edozein dohaintza, opari edo zerbitzuri.
- Ez du onartuko inolako sarrera, txartel, loteria-zenbaki edo bestelako zuzeneko edo zeharkako onurarik, ohiko erabilera sozial eta kortesiazkotik



harago doanik, edo etorkizunean bere erantzukizunetan erabakiak hartzea baldintza dezakeenik.

- Era berean, behar diren neurri guztiak hartu beharko ditu bere familia hurbileko kideek inolako oparirik edo onurarik jasotzen ez dutela bermatzeko, baldin eta susmoa badago tratu onuragarria izan daitekeela pertsona edo entitate baten alde.
- Ez du diru-ordainsaririk edo bestelakorik onartuko hitzaldiak emateagatik, liburu, aldizkari edo egunkarietarako ekarpenak egiteagatik edo edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeagatik, betiere bere eginkizunekin zerikusia badute.

Tokiko ordezkariak duen kargu publikoak beste kargu batzuekin, enplegatu publikoekin edo herritarrekin duen harremana

- Udal gobernua osatzen duten ala ez alde batera utzita, talde politikoetako kideek behar den begiruneaz eta adeitasun instituzionalez jokatu dute elkarrekiko harremanetan. Horrek ez du esan nahi beste taldeen jardueren edo proposamenen kritika politikoa egitean zentsurarik edo tonu-leuntzerik egin behar denik.
- Adeitasuna eta heziketa ona izango dira beti tokiko politikarien eta zuzendaritza-karguen arteko harreman-moduak.
- Errespetuz eta arreta bereziz tratatuko dituzte udal langile publikoak. Horrek esan nahi du ez dela egongo inolako portaerarik errespetu eta begirune hori aldatu edo kaltetu dezakeenik. Batzordeak beharrezkoak diren legezko neurriak hartuko ditu langileentzat giro mehatxugarri, umiliagarri edo iraingarria sortzen laguntzen duten portaerak edo jokabideak bertan behera uzteko, eta langileen duintasunaren eta ohorearen, intimitatearen, osotasun fisiko eta moralaren, eta diskriminaziorik ezaren aurka (laneko jazarpena edo mobbinga, sexu-jazarpena eta sexuagatik jazarpena) doazen jokabideak mozteko.
- Herritarrei arreta egokia eta adeitsua eskainiko diete, proposamenak, iradokizunak eta kexak aktiboki entzunez.

Gardentasuna: informazioa eskuratzea

- Kasuan kasuko erakundearen jarduera publiko eta kudeaketa-jarduera guztiak gardentasun-printzipioaren mende jarri beharko ditu, legeak konfidentziasuna eskatzen duenean edo hirugarrenen eskubideei eragin diezaieketenean izan ezik. Nolanahi ere, salbuespen horiek modu murriztailean interpretatuko dira.
- Publizitate aktiboaren printzipioa eraginkortasunez beteko du, bere erakundeetan gardentasuna bermatzeko.
- Herritarrek eta erakundeek informazio publikoa benetan eskura dezaten bultzatuko du, legeek ezartzen dituzten mugekin.




- Informazio-eskaerei erantzun azkarrak eta behar bezala arrazoituak emango zaizkiela bermatuko du.
- Gobernu Irekia benetan ezartzearen, Udal Administrazioaren informazioa berrerabiltzearen eta administrazio elektronikoen alde egingo du.
- Herritarrek parte hartzeko bideak sustatuko ditu, ahal dela informazio-teknologia berrien bidez.
- Administrazio parte-hartzailearen eta sinplifikatuaren alde lan egingo du, hizkera erraz eta ulergarria erabiliz.
- Bere eginkizunak betetzean, datu pertsonalen babesa zainduko du, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak adierazten duen moduan.

II.- GOBERNU ONAREN PRINTZIBIOAK

Udal Administrazioak ondoren aipatzen diren printzipioen arabera garatuko du bere politika-, gobernu- eta administrazio-arloko ekintza, kudeaketa eraginkorraren eta etengabeko hobekuntzaren helburuak kontuan hartuta.

Gobernu onaren printzipioak tokiko ordezkarien jardueran:


- Indarrean dagoen sistema juridikoa errespetatzea eta herritarren oinarrizko eskubideak bermatzea.
- Herritarrek gai publikoetan eta Udalaren erabaki publikoak hartzeko prozesuetan parte har dezaten sustatzea.
- Etengabe hobetzeko ahalegina egitea, herritarren beharrak asetzeko erabaki eta zerbitzu publikoetan.
- Udalean ordezkariak duten talde politiko guztiak egotea Udalarenak diren entitate instrumentalen administrazio-kontseiluetan.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan gardentasunez jardutea eta herritarrei beharrezko informazio guztia ematea, erraz ulertzeko moduan.
- Herritarren premiei azkar erantzutea, arazoak konponduz eta sortzen diren eskaerei arrazoizko denboran erantzunez.
- Irekita egotea politikoen eta herritarren arteko adostasun sozialak lortzeko, gizartearen interesen arteko bitartekaritza eginez, eta gizarte-eragileekiko eta, bereziki, egoera ahulenean daudenekiko sentsibilitate berezia erakutsiz.
- Gizarteratzearen alde lan egitea, zerbitzuak herritarrei hurbilduz eta modu ekitatiboan banatuz.
- Egituren eta prozeduren antolaketan eta modernizazioan berrikuntza bultzatzea. Berrikuntzak apustu irmoa eta iraunkorra eskatzen du aldaketaren eta moldagarritasunaren alde; ideia, kontzeptu eta prozesu berrietara irekitzearen alde.
- Udal-gobernantza adimentsu eta jasangarriaren alde egitea.



- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, gizarte-kohesioa eta pertsonen berdintasuna sustatzea era guztietako desberdintasunen gainetik, eta aniztasuna eta bizikidetzatza egoki kudeatzea.
- Ingurumena eta biodibertsitatea babestea eta klima-aldaketaren aurkako borroka sustatzea.
- Baliabide publikoak eraginkortasunez eta arrazionaltasunez kudeatzea, alferrikako xahutzea edo gastua saihestuz, eta zorpetze jasangarria aurrera eramanez.
- Herritarrek Udalerako sarbide elektronikoa izan dezaten bultzatzea, horretarako informazio- eta ezagutza-teknologiaren erabilerrako baliabideak jarritz.
- Hartzen diren erabaki politiko edo administratiboen erantzule izatea eta, bereziki, kudeaketarekin lortutako emaitzen erantzule.
- Zerbitzu edo arloen eginkizunei, jarduteko arazoiei edo funtzionamenduari buruzko edozein informazio-eskaerari erantzun egokia ematea.
- Eibartar izatearen sentimendua eta baliabide publikoekiko errespetuak duen garrantzia bultzatuko dira, bai eta haien erabilera arduratsua eta jasangarria ere.
- Beste administrazio batzuekiko elkarreragintasunean edo interoperabilitatean aurrera egitea sustatuko da.


Gobernu onaren printzipioak prestazio eta baliabide publikoen kudeaketari dagokionez

- **Jasangarritasuna.** Kargu publikoak oreka egokia bilatuko du gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-lehentasunen artean, herritar guztien parte-hartzea sustatuz. Hiri-ingurune iraunkor eta adimendunen aldeko hirigintza-plangintzako erabakiak hartuko ditu, pertsonen beharrek bat datozenak. Iraunkortasunak, oro har, ingurumena eta hiriko hiri-baliabide mugatuak hartu behar ditu kontuan, baita baliabide ekonomiko-finantzario mugatuak ere.
- **Deszentralizazioa.** Udal gobernuaren autoantolakuntza-ahalmena sustatuko du, eta, ildo horretatik, herritarrek parte hartzeko organo, egitura eta bideak izatea, sortzea eta berritzea sustatuko du; hartara, erabakiak hartzen, baliabideak esleitzen eta zerbitzu publikoak ematen lagunduko duen lurralde-deszentralizazioaren printzipioan aurrera egiteko, eta, era horretan, parte hartzeko sarearen hazkundera eta kalitatea lortzeko.
- **Ekitatea.** Ekitate-printzipioan oinarritutako politikak eta zerbitzuak ematearen alde egingo du, bai xede-publikoari dagokionez, bai prezio publikoari edo zerbitzuen tasari dagokionez. Pizgarriak emango zaizkie desabantailan dauden talde jakin batzuei.
- **Berdintasuna.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko da, honako printzipio hauen arabera: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzea, genero-ikuspegia integratzea, ekintza positiboa, sexuaren



araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea, ordezkaritza orekatua eta koordinazioa eta lankidetzak.

- **Eraginkortasuna.** Zerbitzuak eman eta kudeatzeko orduan, baita gastu publikoa egitean ere, eraginkortasun-irizpideak erabiliko dira bitarteko eta baliabide guztietan.
- **Gardentasuna eta kontuak ematea.** Bai erabakiak hartzeko prozesuetan, bai edozein administrazio-prozeduratan, bai tokiko botere publikoen jardueran, gardentasun-printzipioak aginduko du. Gardentasun-printzipio hori publizitate aktibotzat ulertu behar da, eta herritarrek informazio publikorako sarbidea izango dutela bermatzeko bitartekotzat, legeak ezartzen dituen gutxieneko murrizketekin. Informazio objektiboa eta egiazkoa emango da Agintaldiko edo kudeaketako plan batean aurrez ezarritako helburuak eta konpromisoak betetzeari buruz (kontuak ematea).
- **Lankidetzak.** Administrazioaren lanean, herritarrei eta gainerako gizarte-eragileei laguntzeko konpromisoa.
- **Konpromiso zibikoa, hizkuntza eta kultura propioaren eta aniztasunaren defentsa.** Euskararen normalkuntza eta erabilera eraginkorra garatuko da, bai Udalarekiko harremanetan, bai udalerriko gizarte-harremanetan. Nolanahi ere, errespetatu egin behar da herritar bakoitzak udal administrazioarekin harremanetan jartzeko orduan hizkuntza ofiziala aukeratzeko egiten duen aukera. Euskal kultura bultzatuko da bere adierazpide guztietan. Bultzatuko dira, halaber, aniztasunaren kultura, herritarren erantzukizun zibikoen sustapena, errespetuaren kultura, gatazkak konpontzeko bide alternatiboen eta bitartekaritzaren erabilera, eta desabantaila-egoeran dauden pertsonen kolektiboek edo taldeek (gazteak, hirugarren adinekoak, etorkinak, langabetuak, etab.) tokiko jardueran parte har dezaten sustatzea, Udalak haien interesak, iritziak eta ikuspuntuak behar bezala baloratu ahal izan ditzan.
- **Segurtasuna eta Babes Zibila.** Arrisku naturalen aurrean herritarren kontzientzia sustatzea eta krisi-egoerak kudeatzea bultzatuko da, eta herritar guztientzako, batez ere haurrentzako, giro seguru eta osasungarria lortzen saiatuko da uneoro. Herriko edo udalerriko kide izatearen sentimendua sustatuko da, herritarren bizikidetzak garatzeko eta herritarrek espazio publikoan eta gainerako auzotarrekiko harremanetan dituzten betebeharrak eta erantzukizunak beren gain hartzeko politiken bidez. Herritarren erosotasuna, lasaitasuna eta osasun-bermea hobetzea dakarten alderdi guztietara zabalduko da segurtasuna (kaleak eta plazak zaintzea, ura eta hondakinak tratatzea, elikagaiak kontrolatzea, etab.).




III.- ORDEZKARI POLITIKOEN ERANTZUKIZUNAK ETA KONPROMISOAK EIBARKO UDALEAN ERAKUNDE-KALITATEAREN POLITIKA GAUZATZEKO

Eibarko alkateak eta udal gobernua udalerraren gobernu eta erakundearen zuzendaritza politikoa arduraz zuzentzeko eginkizun instituzionala dute, beren eginkizunetan leialtasunez jokatu, herritarren ongizaterik handiena lortzeko xedez; betiere beren eskumen-esparruen eta eskura dituzten baliabideen barruan.


Horretarako, konpromiso eta erantzukizun hauek hartzen dituzte herritarren aurrean:

- **Erakundea duintasunez ordezkatzeta.** Alkateak eta Udal Gobernu osatzen duten pertsonak —alkateari, alorreko zinegotzi ordezkariak eta gobernu-erantzukizunik gabeko ordezkari politikoei aholkuak ematen dizkieten behin-behineko langileak edo izendapen librekoak—, erakunde osoa ordezkatzeko konpromisoa hartzen dute. Zuzentasun politikorako Europako Jokabide Kodeak jasotzen duenez, herritar guztien aurrean dute erantzukizuna, baita botoa eman ez dieten hautesleen aurrean ere. Ordezkari instituzionalaren eta tokiko agintariaren kondizioa legitimitate demokratikoak ematen die. Horrek zuzentasun eta zuhertasun berezia eskatzen du karguan eta portaera publikoan eta pribatuan, betiere pertsona bakoitzaren bizimoduaren eta irudiaren arabera.
- **Eraginkortasunez komunikatzeta eta herritarrei modu aktiboan entzutea.** Udal gobernuaren eta Udalbatzako gainerako ordezkari politikoen kalitatezko toki-politika, herritarren ikuspegitik, neurri handi batean eraginkortasunez komunikatzeko gaitasunaren mende dago. Udal gobernu osatzen duten pertsonak, bai eta gobernu-erantzukizunik ez duten gainerako ordezkari politikoei ere, eskura dituzten bitarteko guztiak (idatzizko eta ikus-entzunezko komunikazio-euskarriak, teknologia berriak, sare sozialak...) erabiltzeko konpromisoa hartzen dute, herritarrekin komunikatzeko eta beren erabakiak helarazteko, eta, gainera, erabakiak zergatik hartu diren adierazteko arrazoiak erraz eta modu ulergarrian emateko. Era berean, konpromisoa hartzen dute herritarren kezkek, iradokizunak edo kezka modu aktiboan eta arretaz entzuteko, bai eta haien eskaerak modu arrazoituan baztertzeko ere, egoerak hala eskatzen duenean.
- **Gainerako talde politikoei beharrezko informazioa ematea.** Udal Gobernuak beharrezkoa den informazioa emango die gainerako talde politikoei, Gobernuaren gaineko kontrol lana egin ahal izan dezaten.
- **Politikak formulatzeta eta helburu estrategikoak zehaztea.** Udal Gobernuak konpromisoa hartzen du helburu estrategikoak zehazteko, horien bitartez udal politika koherente eta jasangarria egiteko herritarren



mesedetan. Politika hori aginte-planen edo gobernu-planen bidez bideratuko da. Betiere, ingurune aldakorretara egokituko dira udal politikaren ardatz horiek.


- **Politikak lehenestea eta erabakiak hartzea.** Lehentasun politikoen definizioa Tokiko Politikaren funtsa da, are gehiago ekonomia- eta finantza-krisialdian edo aurrekontuei eusteko garaian. Udal Gobernuak osatzen dutenek konpromisoa hartzen dute udal finantzen jasangarritasuna jokoan dagoenean erantzukizunez jokatzeko, Eibarrentzat eta herritarrentzat garrantzi handiena duten politikei lehentasuna emanaz; bereziki kontuan hartuz talde ahulenak, eta gizarte- eta hiri-jasangarritasuneko irizpideak; halaber, konpromisoa hartzen dute erabaki konplexuak hartzera behartzeko, egoerak hala eskatzen duenean.
- **Emaitzen edo helburuen arabera lan egitea.** Emaitzen edo helburuen araberrako lana Udalaren politika arrazionalizatzeko prozesu baten ondorioz sortzen den premia bat da, onartutako Gobernu edo Agintaldi Planekin bat etorriz.
- **Arazoak konpontzea eta gatazken konponbidea bilatzea.** Udal Gobernuak osatzen duten pertsonak konpromisoa hartzen dute beren komunitate politikoko gatazkek edo arazoak konpontzeko edo soluzio-bide arazoizkoak bilatzeko; izaera hori ez dutenak, aldiz, Udalaren zuzendaritza- edo funtzionario-egiturek konpondu behar dituzte.
- **Beharrezkoa denean eskuordetzea.** Alkateak eta Udal Gobernuak osatzen duten pertsonak konpromisoa hartzen dute garrantzi txikiagoko gaiak eskuordetzeko, beren antolaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta herritarrei zerbitzu hobek emateko.
- **Adostasunak bilatzea:** Agintean diharduenean, Udal Gobernuak ahalik eta adostasun handiena bilatuko du talde politiko guztiekin, herritarren onerako diren helburuak definitzerakoan.
- **Arduraz negoziatzea.** Udal gobernuak osatzen dutenek konpromiso hau hartzen dute: edozein kolektiboren, gainerako talde politikoen edo instituzioen aurrean egiten diren negoziazio-prozesu guztietan, hiriaren interes kolektiboak eta gizarte- eta herri-iraunkortasuna eta udal finantza publikoak babestea, ez delako jarrera arduratsua etorkizuneko belaunaldiak hipotekatzea edo udalerrria modu ez-iraunkorrean zorpetzea. Negoziazio-prozesu orotan, behar den kasuetan “ez” esateko konpromisoa hartzen dute, eta ahal dela ezezko hori datu objektiboekin arrazoituko dute, betiere, “ez positibo” justifikatuaren eta arduratsuen alde eginez.
- **Baliabide urriak lehenestea.** Aurrekontuari eusteko testuinguru batean, tokiko hautetsiak behartuta daude udalerrri bakoitzeko baliabide publikoak arduraz eta efizientzia- eta ekonomia-irizpideekin kudeatzera. Horrek esan gura du aurrekontu errealistak eta doituak egin behar direla; gastuari eusteko eta zerbitzuen kostua kontrolatzeko politikak ezarri behar direla; aurrekontua udal politikekin lerrokatuta jorratu behar dela, eta, horrela, baliabide publikoen kudeaketa txarragatik letorkeen gaitza saihestu: herritarrak fiskalki zigortzea.



- **Udal politika publikoak ebaluatzea eta gainbegiratzea** . Alkateak eta Udal Gobernuak osatzen dutenek beren ardurapean dituzten zerbitzuak eta politikak etengabe ebaluatu eta gainbegiratzeko konpromisoa hartzen dute, helburuetan eta hasieran aurreikusitako kostuetan inolako desbideratzerik egon ez dadin, eta desoreka horiek herritarren kalterako ez daitezken izan. Eginkizun horietan aritzeko, talde teknikoetan edo aholkulari teknikoetan oinarrituko dira. Kudeaketa-helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuaren betetze-mailaren berri emango da.
- **Sareak eratzea eta Gobernu Irekia bultzatzea**. Udal Gobernuak osatzen duten pertsonen Gardentasun eta Gobernu Irekiaren politika garatzeko konpromisoa hartzen dute, eta, era berean, sareen eraikuntza sustatuko dute, informazio-trukeen eta sinergien bidez, tokiko gobernuaren garapena bultzatu eta irtenbideak partekatzen eta zerbitzuak emateko orduan kostuak murrizten lagunduko duten sareak. Aldi berean, Udal Gobernuak tokiko gobernantza adimenduna sustatuko du, hala, partaidetza-, gertutasun- eta eztabaida-formulen bidez, herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza indartzeko.
- **Gobernu taldeen edo haien zuzendaritza edo funtzionario taldeen buru izatea**. Alkateak, bereziki, eta Udal Gobernuak osatzen duten pertsonen konpromisoa hartzen dute, batez ere, pertsuasioan eta eredugarritasunean oinarritutako lidergoak bultzatzeko, profesionaltasuna garatzeko, proiektu batean lan egiten duten zuzendaritza-talde eta langile-taldeak kohesionatzeko eta beren erakundeetan lan egiten duten pertsonen oreka eta garapen emozionala lortzeko. Ongi gauzatutako lidergoak herritarrei zerbitzu publikoak hobeto emateko bitarteko gisa balio behar du.

IV.- BANAKAKO ATXIKIMENDUA

- Agiri honi banaka atxikitzea berariazkoa eta nahitaezkoa da gobernu-erantzukizunak dituzten ordezkari politikoentzat, bai eta alorreko zinegotzi ordezkarien aholkularitzari esleitutako behin-behineko langileentzat ere. Gobernu-erantzukizunik ez duten gainerako udal ordezkari politikoentzat, berriz, atxikimendua borondatezkoa izango da.
- Atxikimendu Adierazpenaren bidez formalizatuko da konpromiso hori.
- Udalean gobernu-erantzukizunak dituen ordezkari politiko berri bat izendatzeko, aldeztu aurretik banakako atxikimendua eman beharko dio tresna honen eduki osoari, berariaz eta eta idatziz formalizatuko duen atxikimendua, alegia. Karguaz jabetzeko izapiderik ez duten karguen kasuan, izendapena egin aurretik egin beharko da norbere atxikimendua.
- Horretarako formalizatutako agiriak Idazkaritza Nagusian gordeko dira.
- Kodeari banaka atxikitzeak berekin dakar Kode honetan ezarritako printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen portaerak eta jokaerak izateko betebeharrak eta obligazioak bere gain hartzea.



V.- EIBARKO UDALEKO ETIKAREN ETA GOBERNU ONAREN BATZORDEAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK


Ondoren zehaztuko da Eibarko Udaleko Etika eta Gobernu Onaren Batzordeak bere erantzukizunak gauzatzean izan behar dituen osaera eta eginkizunei buruzko proposamena, baita jokabide-kodea ez betetzeagatik edo behar bezala ez betetzeagatik hartu beharreko neurriak ere:

OSAERA

- Langileriaren eta Antolaketaren arloan eskumena duen zinegotzigoaren titularra; horixe izango da batzordeburu.
- Eibarko Udaleko talde politiko bakoitzeko ordezkari bat.
- Eibarko Udaleko idazkari nagusia.
- Langileriaren eta Antolaketaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularra.

EGINKIZUNAK

- Etika Publikoaren Batzordea oharrak, kontsultak eta iradokizunak jasoko dituen organo eskuduna izango da, baita Kode honetan ezarritako aurreikuspenak egokitzeko proposamenak gauzatzeko prozedurak martxan jarriko dituen ere.
- Etika eta Gobernu Onaren Kodea abian jartzea bultzatzea, behar diren ekintza eta neurrien bidez.
- Etika eta Gobernu Onaren Kodean behar diren aldaketak proposatzea eta Osoko Bilkurari igortzea, kontuan har ditzan.
- Kodearen hartzaileek eta beste edozein instantziek Etika eta Gobernu Onaren Kodearen aplikazioari buruz egindako kontsultak ebaztea.
- Etika eta Gobernu Onaren Kodean jasotako balio, printzipio edo jokaeretan egon daitezkeen ez-betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, eta dagokion izapidera bideratzea.
- Kodearen hartzaileei Etika eta Gobernu Onaren Kodea betetzeari buruzko gomendioak ematea.
- Etikaren eta Gobernu Onaren Kodearen betetze-maila gainbegiratzeko urteko txostena egitea. Eibarko Udaleko idazkari nagusiak idatziko du txostena. Dokumentu horrek gomendioak jaso ditzake. Txostenaren ondorioak eta gomendioak publikoak izango dira.
- Etika publikoaren arloko erakundeen hobekuntza helburu duten zabalkunde, prestakuntza edo tailer berariazkoak sustatzea, bidezko diren instantzietan.



- Etika eta Gobernu Onaren Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, Lehendakartzaren aginduz deialdia egin ondoren. Aurrekoa ezertan galarazi gabe, aztertu beharreko gaien izaeraren eta presaren arabera beharrezkotzat jotzen diren bilkura berezi guztiak egin ahal izango dira. Kasu horretan, bilerak aurrez aurre edo baliabide telematikoak erabiliz egin daitezke.
- Etika eta Gobernu Onaren organoko kideek sekretupean gorde behar dituzte beren eginkizunak betetzean izan duten informazio guztia; bereziki, aztertutako egitateei, ikerketen eta eztabaiden edukiari, eta hartutako erabakiei buruzkoa, bai eta datu pertsonalei buruzkoa ere. Era berean, ez dute inolako adierazpen publiko edo pribaturik egingo arestian adierazitakoari buruz eta organo horretan abian den prozedurari buruz.

Etika eta Gobernu Onaren Batzordearen erabakiak eta txostenak publikoak izango dira, konfidentzialtasun-betebeharraren aurka ez doazen heinean. Batzordea osatzen dutenek isilpean gorde beharko dute beren eginkizunak betetzean izan duten informazio guztia; bereziki, aztertutako egitateei, eta ikerketen eta eztabaiden edukiari buruz, gerta daitezkeen boto partikularrak ukatu gabe.

JOKABIDE-KODEA EZ BETETZEAGATIK EDO BEHAR BEZALA EZ BETETZEAGATIK HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Kode honetan aurreikusitako arau etikoak eta jokabide-arauak urratu direla edo ez direla behar bezala bete modu frogagarrian egiaztatu denean, etorkizuneko Eibarko Udaleko Etika eta Gobernu Onerako Organoak kargu publikoa izendatzea dagokion organo eskudunari proposatuko dio honako neurri hauetakoren bat hartzea, gertaeraren larritasuna, eragin publikoa eta irudi instituzionalean izan duen eragina kontuan hartuta:

- Inplikaturako pertsona edo pertsonak kargua berehala uzteko ohartarazpena edo gomendioa.
- Beste neurri batzuk hartzea, zehapenekoak ez direnak, egiaztatutako gertaeren larritasunarekin bat datozenak eta ikuspuntu etikotik karguen jarduna zuzentzeko eta hobetzeko eraginkorrak direnak.
- Egiaztatutako egitateak delitu edo delitu arin edo administrazioko arau-hauste izan daitezkeenean, Etika eta Gobernu Onaren organoak, dagokionaren arabera, honako hau erabakiko du:
 - Gaia Ministerio Fiskalera eramatea, Eibarko Udaleko Etika eta Gobernu Onerako organoaren bidez, ekintza edo ez-egite hori delitu edo delitu arina izan daitekeenean.



UDAL BATZARRAK
ONARTUA

2020 EK: 29

APROBADO
POR EL PLENO MUNICIPAL

- Gaia administrazio-organo eskudunari igortzea, diziplina-arloan egindako arau-haustea ireki, instrukzioa egin eta, hala badagokio, zehatzeko.



I. ERANSKINA

EIBARKO UDALEKO KARGU PUBLIKOEN ETA BEHIN-BEHINEKO LANGILEEN KODE ETIKOARI ETA GOBERNU ONARI ATXIKITZEKO ADIERAZPENA

Nik, behean sinatzen duen honek, [...] (e) ko Udaleko Osoko Bilkuran onartutako Etika eta Gobernu Onaren Kodearen edukiaren arabera, hau adierazten dut:

- 1.– Agiri honen idazpuruan aipatutako kodearen ale bat daukat, bai eta agiri hau onartzen duen Udalbatzaren Akordioaren ale bat ere.
- 2.– Irakurri ondoren, Kodearen eduki osoari atxikitzen natzaio, eta bertan jasotako printzipioak eta betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dut.
- 3.– Bere zabalkundea eta aplikazioa errazteko konpromisoa onartzen dut, baita atxikitzeak dakartzan betebeharrak ere.

Eta horrela jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.....

Izpta.: :

Alkatea, zinegotziak, behin-behineko langileak edo izendapen librekoak.



II. ERANSKINA

KONTSULTAK ETA SALAKETAK AURKEZTEKO MODUA

Kontsultak eta salaketak honako kanal hauen bidez aurkeztu ahal izango dira. Harremanefarako datuak adierazita edo modu anonimoan egin daiteke jakinarazpena.

Posta elektronikoa: idazkaritza@eibar.eus

Posta: Ayuntamiento de Eibar
Untzaga plaza 1
20600 Eibar

Erregistroa: Pegorako Udal Erregistroaren bidez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako gainerako legezko lekuetan ere.